
LANEKO BALDINTZEN INKESTA

LBI - 2024

**Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Estatistika
Organo Espezifikoa**

Ekonomia Zuzendaritza
2026/02/23



**Ekonomia, Lan eta
Enplegu Saila**

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak 2024an egindako laneko baldintzen inkestaren arabera (LBI), guztira **919.083 soldatapeko hertsia¹ edo antzekoak²** identifikatu dira, eta aurrerantzean, bi multzo horiek Euskal Autonomia Erkidegoko **soldatapeko pertsonen edo soldatapeko biztanleria³** kontzeptuaren barruan bilduta geratuko dira. Horietako gehienak, 832.707 pertsona (% 90,6) soldatapeko hertsia dira, 34.954 kooperatibista dira (% 3,8) eta gainerako 51.423 (%5,6) pertsonak soldatapeko langileekin pareka daitezkeen langile autonomoen beste kasu batzuekin lotzen dira (beren enpresako 46.016 soldatapeko eta 5.407 TRADE autonomo).

Soldatapeko langile hertsien taldearen barruan, gehienak sektore pribatukoak dira (666.961 pertsona, % 72,6), eta gainerako 165.746 pertsonak sektore publikokoak (%18).

1. Taula						
Soldatapekoak. Egoera profesionala. EAE 2009-2024						
Datu absolutuak eta 2009-2024 arteko bilakaera, kopuru absolutuetan eta urteko batez besteko aldakuntzaren %-a						
	2020		2024		2020-2024	
	Guztira	% b .	Guztira	% b .	Guztira	Urteko batez besteko aldakuntzaren %a
Guztira	842.523	100	919.083	100	76.560	2,2
Soldatapeko hertsia	760.707	90,3	832.707	90,6	72.001	2,3
- Sektore publikoko soldatapekoak	160.727	19,1	165.746	18	5.019	0,8
- Sektore pribatuko soldatapekoak	599.980	71,2	666.961	72,6	66.981	2,7
Kooperatibista	31.148	3,7	34.954	3,8	3.806	2,9
Beste egoera batzuk (*)	50.669	6	51.423	5,6	754	0,4

(*) Soldatapeko langile hertsien pareko langile autonomoak, TRADE autonomoak barne.

Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Soldatapeko langileen azken lau urteetako hazkundera

Soldatapekoak 2020an 842.523 pertsona izatetik 2024an 919.083 izatera igaro dira (76.560 pertsona gehiago), eta, beraz, aldi horretan urteko batez besteko % 2,2ko igoera lortu da. Enpleguaren hazkundera inkestan aztertutako lanbide-egoera guztietan egiaztatu da; hala ere, intentsitate desberdineko hazkundera identifikatu dira. Soldatapeko langile pribatuak (% 2,7) eta kooperatibistak (% 2,9 urtean) batez bestekotik gorako urteko hazkundera izan dituzte; aldiz, soldatapeko hertsien pareko langile autonomoak (% 0,4 urtean) eta sektore publikoari lotutako soldatapeko


¹ Soldatapeko hertsiek besteren kontura egiten dute lan enpresa pribatuarentzat edo enpresa publikoarentzat, eta soldata edo ordainsari erregularra jasotzen dute beren zerbitzuen truke.

² Inkesta honetan, soldatapeko hertsia edo soldatapeko antzekoak parekoak dira. Soldatapeko antzekoak, izan daitezke autonomoen erregimenean kotizatu baina beren enpresako soldatapekoak, edo TRADE autonomoak. TRADE autonomoaren kontzeptuak zera esan nahi du: bezero berarentzako (pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke) irabazizko jarduera ekonomiko edo profesional bat egiten duena modu ohiko, pertsonal, zuzen eta nagusian; bezero horren mende dago ekonomikoki, lan eta jarduera ekonomiko edo profesionalen etekinengatik jasotzen dituen diru-sarreraren % 75, gutxienez, harengandik jasotzen duelako. Otsailaren 23ko 197/2009 Errege Dekretuak arautzen du figura hori

³ Inkesta honetan soldatapeko hertsia edo soldatapeko antzekoak biltzen ditu soldatapeko pertsonen edo soldatapeko biztanleriaren kontzeptuak.

langileek (% 0,8 urtean) urteko hazkunde txikiagoa izan dute. Beste aldetik enplegu bat baino gehiago duten soldatapekoak guztizkoaren % 12,3 dira, eta zifra hori 1,8 puntu jaitsi da 2020arekin alderatuta (% 14,1).

1. Irudia




(*) Beren enpresako soldatapeko gisa lan egiten duten autonomoak edo ia eskusiboki kanpoko enpresa bakar batentzat lan egiten duten pertsonak (TRADE). 2013tik aurrera eskuragarri dagoen informazioa, aurreko edizioetan soldatapekoak soilik aztertzen baitziren.

Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

2020tik 2024ra bitartean, kategoria altu eta ertainei lotutako zereginak dituzten soldatapekoen kopuruak gora egin du.

Kategoria altu eta ertainei lotutako zereginak dituzten soldatapekoak % 15,8 igo dira azken lau urteetan, 2020an 511.845 pertsona izatetik 2024an 592.968 izatera igaro baitira; kategoria baxuei edo beste zeregin batzuei lotutako zereginak egiten dituzten pertsonen kasuan, berriz, % 1,38 jaitsi da kopurua (2020an 330.678 pertsona izatetik 2024an 326.115 izatera igaro da).

2. Irudia



Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Enpleguaren hazkunde handiena, ehunekotan, kategoria altu eta ertaineko merkataritza-arloari lotutako lanean dago, % 9,89ko urteko hazkundearekin 2020-2024 aldian; 2016-2020 aldian % 5,29ko galera izan zuen. Ondoren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen kategoria dago (goi-mailako titulazioa). Kategoria horrek % 6,23ko urteko hazkundea izan du 2020-2024 aldian (2016-2020 aldian identifikatutako hazkunde baina intentsitate txikiagoarekin: % 7,31), eta industria-ekoizpena (kategoria altua/ertaina), % 4,85eko urteko batez besteko hazkundearekin 2020-2024 aldian

Aitzitik, enplegu-murrizketa handienak kategoria baxuari lotutako lan-edukia duten enpleguetan ageri dira: kategoria baxuko komertzialaren kasuan, urteko batez besteko % 4,82ko murrizketa izan da, eta bulegoko kategoria baxuko kasuan, berriz, % 4,7koa. Hala ere, hirugarren sektoreko kategoria baxuko produkzioak urteko batez besteko % 5,13ko igoera izan du 2020-2024 aldian.

2024an, emakume soldatapekoen proportzioa gizonen proportzioarekin parekatu da

2024an, emakume soldatapekoen ehunekoa gizonen ehunekoaren ia berdina zen (459.569 vs 459.487, 2024an), azken urteetan EAEn soldatapeko emakumeen kopuruak etengabe gora egin duelako: 1996an 196.676 ziren soldatapekoak, eta 2024an 459.487 dira zenbatutako soldatapekoak (+% 133,6). 1996an langileen % 34,6 ziren emakumeak, eta % 65,4 gizonak; gaur egun, berriz, % 50 dira bi sexuetan.


3. Irudia



Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Soldatapekoen kopuruak gora egin duen arren, tarteko adineko pertsonen (30-44 urte) kopuruak behera egin du azken lau urteetan, 2020an 319.434 pertsona izatetik 2024an 298.752 izatera igaro baitira (biztanleriaren zahartzeak eraginda); aldiz, 45-64 urteko biztanleen taldeak etengabe gora egiten jarraitzen du 1996tik: 2020an 438.516 pertsona izatetik 2024an 500.043 izatera igaro da. 30 urtetik beherako taldean, eten egin da 2004an hasitako beheranzko joera, eta azken 4 urteetan handitu egin da, 2020an 84.572 pertsona izatetik 2024an 120.288 izatera igaro baita, 2009tik gairatu gabeko zifra (162.453 pertsona).

4. Irudia




Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Lanbide-kategoria altuko soldatapekoen pisua aztertuz gero, ikusten da kategoria horretako lanpostuetan lan egiten duten gizonak % 40,2k direla; emakumeen kasuan, berriz, ehuneko hori % 45,5era igotzen da. 1996az geroztik, kategoria altuko soldatapeko emakumeen ehunekoa gizonen gainetik egon da, eta 2020 eta 2024 artean emakumeen gorakada ia 10 puntura iritsi da (2020an % 35,7 izatetik 2024an % 45,5 izatera igaro da).


Langileen kolektibo hori adinaren arabera aztertuz gero, ikusten da 16-29 adin-tarteetan kategoria altuko emakumeen ehunekoa gizonena baino nabarmen handiagoa dela serie historiko osoan. 30-44 urteko adin-tartean, alde hori murriztu egiten da, nahiz eta emakumeek ehuneko handiagoak eskaintzen jarraitzen duten, eta aldea nabarmen handitu da 2024an (emakumeen % 54,6 eta gizonen % 41,5). Adin-tarte handienera (45-64 urte), kategoria altuko soldatapeko gizonen ehunekoaren serie historikoa kategoria horretako emakumeen gainetik dago 2024ra arte, eta urte horretan lanean kategoria altua duten gizonen eta emakumeen ehuneko bera lortzen da.

5.1. Irudia




Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

5.2.1. Irudia




Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

5.2.2. Irudia



Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

5.2.3. Irudia




Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

2024an, aldi baterako kontratuak % 12,2ra murriztu dira

Aztertutako biztanleriaren kontratu-harremanari dagokionez, hamar pertsonatik zortzik baino zertxobait gehiagok kontratu mugagabea dute (guztizkoaren % 81,2) 2024an; aldi baterako kontratuak, berriz, % 12,2ko minimo historikora murrizten dira, kontratu-araudiaren aldaketak eraginda. Gainerako % 6,7 beste egoera batzuei lotuta dago, eta egoera horretan soldatapeko hertsien pareko autonomoak sartzen dira nagusiki (beren enpresako bertako soldatapekoak dira). Hala ere, talde horren barruan, 2020-2024 aldian TRADE autonomoak % 10,4 murriztu direla ikusi da.

6. Irudia




(*) Serie historikoak, besteak beste, erregimen autonomoan alta ematen duten kooperatibistak biltzen ditu. 2013tik aurrera, TRADE autonomoak eta beren enpresako soldatapeko autonomoak ere sartzen dira.

Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

2024an erosteko ahalmena galdu da 2020ko ordainsariarekin alderatuta

Soldatapekoen urteko batez besteko ordainsaria 1.889 eurokoa izan da 2024an, hau da, % 13,72ko igoera 2020ko batez besteko ordainsariarekin alderatuta. Hala ere, soldata 2024ko prezio konstanteetan aztertzean, hau da, 2020ko azarotik 2024ko azarora metatutako inflazioaren arabera doituta (% 19,1 EAEko KPIaren arabera), ikusten da batez besteko soldata % 4,5 jaitsi dela, eta horrek erosteko ahalmena galtzea ekarri du. Hala, ikusten da 2013. urtearen (1.800 €) eta 2020. urtearen (1.978 €) artean erregistratutako soldata-susperraldia ez dela mantendu 2024. urtean (1.889 €).

7. Irudia



Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Murritz egin da genero-arrakala, baina lanaldi partzialak pisu handiagoa izaten jarraitzen du emakumeen artean

Soldatapeko emakumeek, batez beste, gizonak baino % 15,3 gutxiago irabazi dute 2024an; hala ere, arrakala murritz egin da aurreko edizioekin alderatuta: 2020an, alde hori % 18,4koa zen, eta 2016an, % 21,6koa. Beraz, soldata-arrakala murritzeko joera dago.

Ordukako ordainsarien konparazioari dagokionez, aldea txikiagoa da: 2024an, batez beste, gizonak baino % 5,7 gutxiago jasotzen dute, eta arrakala ere hobetzen du 2020ko emaitzekin alderatuta (% 6,4 gutxiago). Bi diru-sarrera garbien arteko alde hori justifikatzen da oraindik ere emakumeak direlako kontratazio partziala gehien baliatzen dutenak (emakumeen % 17,7k eta gizonen % 4,7k).


Alde esanguratsuak identifikatu dira ordainsarietan, soldatapekoen sexuaren eta adinaren arabera. Batez besteko diru-sarrera handienak dituzten taldeak adin handieneko gizonenak dira: 45-64 urte arteko pertsonen 2.158 euro, eta 30-44 urte artekoek 2.041 euro. Alde nabarmenak daude antzeko adina duten emakumeekin, 1.766 euroko (45-64 urte) eta 1.749 euroko (30-44 urte) batez besteko diru-sarrerak baitituzte. Gazteenak (16 eta 29 urte bitartekoak) dira diru-sarrera txikiak dituztenak, eta, kasu honetan ere, emakumeek (1.545 euro) gizonak baino ordainsari txikiagoa jasotzen dute (1.612 euro).

8.1. Irudia




Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

8.2.1 Irudia




Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

8.2.2 Irudi



Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

8.2.3. Irudia




Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Hamar pertsonatik batek lanaldi partzialeko kontratua du, eta kasuen erdietan baino gehiagotan modalitate hori ez da langileak nahiko lukeena


Lanaldi partzialeko kontratazioa murriztu egin da, 2020an aztertutako biztanleriaren % 14,8 izatetik 2024an % 11,2 izatera igaro baita. Kontratazio mota horrekin lan egindako batez besteko orduak 24,1 dira (2020an baino 2,7 ordu gehiago), baina lanaldi osoko kontratua duten pertsonen lan egiten dituzten batez besteko 37,8 orduen oso azpitik (% 88,8 2024an). Lanaldi partzialeko kontratazioa sexuaren eta adinaren arabera aztertuz gero, ikusten da kontratazio mota horren murrizketa kategoria guztietan gertatzen dela, 2020. urtearekin alderatuta, baina zifra hori asko aldatzen da emakume eta gizonen artean; izan ere, 30-44 urte arteko soldatapeko emakumeen % 18,5ek egiten du lan lanaldi partzilean, eta tarte bereko gizonen % 3,4k bakarrik egiten du lan eredu horretan.

9.1. Irudia




Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

9.2.1 Irudia



Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


9.2.2 Irudia



Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Kontuan hartu behar da pertsona horien erdia baino gehiagorentzako lanaldi murriztua izatea ez dela nahi den aukera bat: 2024an, % 56,4k adierazi dute erabaki hori enpresak hartu duela edo enplegu-erregulazioko espediente (EEE) bati lotuta dagoela, 2020an identifikatutakoa baino ehuneko puntu bat gutxiago soilik (% 57,6), eta zifrak 2009koen antzekoak dira. Lanaldi murriztuko kontratua duten soldatapekoen gainerako % 43,6k ekimen pertsonalagatik, kontziliazioagatik edo beste kasu batzuegatik egin du)


10. Irudia



Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Lan-ordutegia eta familia- eta gizarte-betebeharrak bateragarri egitea EAEko soldatapekoek. 2004-2024

Pertsona gehienek uste dute lan-ordutegia eta familia-betebeharrak nahiko ondo (% 53,7) edo oso ondo (% 22,2) uztartzen direla, baina zertxobait gora egin dute kontrakoa adierazten duten pertsonak: nahiko gaizki uztartzen direla diotenak 2020ko % 14,6tik 2024ko % 17,5era igaro dira, eta oso gaizki adierazten duten pertsonak % 4,9tik % 5,2ra igaro dira aldi berean.


Figura 11

Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Lau pertsonatik batek kobratzen ez dituen aparteko orduak egiten ditu

Soldatapekoen erdiek baino gehiagok ez dute aparteko ordurik egiten (% 56,1ek 2024an, eta % 57,8k 2020an); lautik batek baino zertxobait gehiagok (soldatapekoen % 26,4k 2024an) jakinarazi du aparteko orduak egiten dituela, baina ez dutela ordu horiengatik kobratzen. Gainerako % 17,6k aparteko orduak egin eta horiengatik kobratu egiten du (% 15,4 2020an). Horietatik, 10,4rentzat salbuespenezko kontua da, eta ohikoa % 7,2rentzat. Bi kasuetan, zenbateko hori pixka bat handitu da 2020ko emaitzekin alderatuta (% 8,9 eta % 6,5, hurrenez hurren)..

12. Irudia



Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta


Bost soldatapekotik batek asteburuetan lan egin ohi du

Orain duen lanean, hiru soldatapekotik batek baino gehixeagok (% 37,5) unerren batean larunbatetan edo igandeetan lan egin du, eta bostetik batek asteburuko egunen batean lan egin ohi du (% 20k; % 18,6k larunbatean lan egiten du, eta % 12,7k igandean), eta % 2,1 murriztu da 2020arekin alderatuta (% 22,1). Ehuneko horrek balio handienak merkataritza-lanean ematen ditu, kategoría baxuko % 49aren eta kategoría altu eta ertaineko % 32,8aren artean mugitzen baita. Batez bestetik gora daude, halaber, kategoría baxuko hirugarren sektoreko ekoizpenaren % 26,4 eta osasuneko eta gizarte-zerbitzuetako goi-mailako titulazioen lanei lotutako pertsonen % 25,6.

Era berean, biztanleriaren % 5,1ek dio beti edo maiz lan egiten duela 10 orduz edo gehiagoz, eta ehuneko hori 2020koa baino apur bat txikiagoa da (% 5,6). Lan-arloaren arabera, osasun eta gizarte zerbitzuetako langileen taldea nabarmentzen da (goi-mailako titulazioa), langileen % 16k 10 ordu edo gehiago lan egiten baitu beti edo maiz.

Bestalde, gaueko lana aztertuta, soldatapeko edo antzeko hamar pertsonatik batek gauez lan egiten du (% 9,8); aldiz, % 13,5ek ez du normalean bi atsedeen-egun jarraian, eta zifra hori 2020ko % 18,7tik murriztu da, horiek baitziren orduan bi atsedeen-egun jarraian ez izatea adierazi zutenak.

13. Irudia




Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Bost soldatapekotik batek txandaka lan egiten du

Ordutegi-modalitateari dagokionez, 5 pertsonatik 1ek txandaka lan egiten dute 2024an (% 21), 2020an baino 1,6 puntu gutxiago (% 22,6). Serie historikoak egonkortasuna erakusten du *txandakako lanari dagokionez* (% 20 eta % 22 artean), baina ez da gauza bera gertatzen *lanaldi jarraitua nagusi den modalitatearekin* (batez ere lanaldi jarraituan lan egitea, asteko egunen batean lanaldi etena eginez) eta *lanaldi etena gailentzen den modalitatearekin* (batez ere lanaldi etenean lan egitea, asteko egunen batean lanaldi jarraitua eginez). Serie historikoan ikusten da *lanaldi etenaren nagusitasuna* % 49koa zela 1999an, eta zifra hori pixkanaka % 32ra jaitsi zela 2020an; hala ere, 2024an ehuneko 5 puntuko igoera ikusten da, lanaldi mota horren beheranzko joera hausten duena.

14. Irudia



(1) Honako hauek hartzen ditu: % 100 lanaldi etenean, eta lanaldi eteneko lana, nahiz eta asteko egunen batean lanaldi jarraitua egin

(2) Honako hauek hartzen ditu: % 100 lanaldi jarraituan, eta lanaldi jarraituko lana, nahiz eta asteko egunen batean lanaldi etena egin


Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Lau pertsonatik bat sindikaturen batean afiliatuta dago

Soldatapekoen % 25,7 sindikaturen batean afiliatuta dago, eta 1,3 puntu jaitsi da 2020arekin alderatuta (% 27); hala ere, zifra hori 2016koa baino handiagoa da: 5,2 puntu; hala ere, ez da iristen 2013an izandako % 28,1era.

Afiliatuen ehuneko handiena duten lanbideak industria-lanbideak dira (bai kategoria altu ertainekoak, bai kategoria baxukoak), 10 landunetik 3 afiliatuta baitaude (% 33,9 eta % 36,6, hurrenez hurren), bai eta osasun eta gizarte zerbitzuetakoak ere (goi-mailako titulazioa), landunen % 33,9 afiliatuta baitaude. Aldiz, merkataritzari dagozkion okupazioak (kategoria altua eta ertaina) dira afiliatuen ehuneko txikiena dutenak (% 16,6).

15. Irudia



Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila. Lan Baldintzei buruzko Inkesta

Bost langiletik batek azken urtean ez du oporraldi osorik izan

Biztanleria landunaren % 20,5ek ez du oporraldi osorik hartu azken urtean, eta ehuneko hori 4,2 puntu jaitsi da 2020arekin alderatuta (% 24,7). Opor guztiak hartu ez zituzten pertsona horien artean, 5etik 1ek (% 19) ezin izan zuen hartu enpresak hala eskatuta.

Opor guztiak hartu zituzten pertsonen % 79,5ek batez beste 25,8 laneguneko oporraldia hartu zuten.

Bost pertsonatik bi ez daude pozik enpresan lanpostuz igotzeko duten aukerarekin

Laneko gogobetetasunari dagokionez, aztertutako alderdi guztiek zertxobait okerrera egin dute 2024an, 2020ko emaitzekin alderatuta. Nabarmendu behar da serie historikoko gogobetetze-ezaren ehuneko handienak sistematikoki gertatzen direla mailaz igotzeko aukeretan (2024an ez dago pozik % 43,6 -5etik 2 baino gehiago-), ondoren dator lortutako ordainsariaren gaia (2024an ez dago pozik % 33,6 -3tik 1 baino gehiago-) eta estresaren eta presio psikologikoaren maila; 2024an, % 32,3k adierazi du azken hori jasaten duela, ia 3tik 1ek, eta 2020an baino ehuneko hiru puntu handiagoa da datua.

